



DERIOKO UDALA

DERION, UME ETA GAZTE ZERBITZU INTEGRALA EUSKARAZ KUDEATZEKO ESLEIPENA ARAUTUKO DITUZTEN PRESKRIPZIO TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA

HITZAURREA.

Derioko Udalak "Ludoteka" eta "Gazteleku" zerbitzua dauka, hezkuntza ume-gazte programa euskaraz garatzen duena udalerriko 4-18 urte bitartekoentzat. Aurten barruan izango dira 1999 eta 2008 urteetan jaio direnak.

Udalak lokal ditu proiektu horiek martxan jartzeko, eta plegu honen bidez enpresa bat kontratatu nahi du. Enpresak programak, proiektuak eta jarduerak garatuko ditu, eta horiek erraztuko dituzte: topaketa, partaidetza, jolasak, aisialdia, ohitura osasungarriak indartzea, balioen hezkuntza, ingurugiro, bizikidetza, kultur artekotasuna eta ezagutza solidarioa.

Korporazio interes handia dauka borondatezko eta elkarteen bidezko lana indartzeko.

1. KONTRATUAREN GAIA

Kontratuaren gaia, espedientean zehaztutakoekin bat etorritz, hau da: Haur eta Gazte biztanleei zuzendutako zerbitzu integralen kudeaketa esleitzea (Ludoteka eta Gazte, haur eta gazte programak euskaraz), ondoan azaltzen diren definizioa, ezaugarriak eta helburuak kontuan hartuta.


2.- PROGRAMAREN DEFINIZIOA

Haur eta gazte zerbitzuak gizarte-hezkuntzarako jardute ildoan daude, eta horiek elkarrekiko lotura izango dute euren baterako definizioan.

Derion haur zerbitzua eta Ludoteka euskaraz sortu behar dira alternatiba gizarte-hezkuntza bezala aisialdian Derioko udalerriko 4-13 urteko ume-kolektiboarentzat.

Nerabe eta Gazte programa sortu behar dira alternatiba gizarte-hezkuntza bezala aisialdian 14-18 urteko nerabe-gazte kolektiboentzat. Aurten izango dira 1994 eta 1998. urteetan jaioak.

Ludoteka, Larrabari baserriko behe solairuan kokatuta dagoena, jolas-heziketa tokia da, bertan Derioko umeek tokia eta denbora dauzkate elkarrekin izateko, harremanak izateko, parte-hartzeko, jolasteko eta atsedenerako.



DERIOKO UDALA

Gazte zentroa, Besaide plazan kolaketan kokatuta, jolas-kulturarako tokia da. Bertan nerabeek eta gazteek tokia eta denbora dauzkate elkarrekin izateko, harremanak izateko, jolasteko eta atsedenerako.

Ludoteka eta Gazte tokiek ekipamendua daukate erabiltzaileen interesak betetzeko, gainera, pertsonal espezializatua daukate, zeinek dinamizazio programa erabiliz ekintza integrala garatuko duten, bai garapen pertsonalaren eta haur-gazte kolektiboa gizarteratzearen alde, bai proiektuak eta ekimen interesgarrien alde.

3.- JARDUERAREN KOKAPENA ETA LOKALEN DESKRIPZIOA.

Ludoteka kokatuta dago udalaren lokal batean, Derioko Larrabari Baserriko behe solairuan hain zuzen ere.

Gazteentzako den zentroa "Gazte" udalaren lokal batean kokatuta dago, Derioko udalerriko Besaide plazan, hain zuzen ere.

Lehiaketan parte hartu nahi duten enpresei plano eta lokalen azpiegituren ezaugarriak emango zaizkie.

4.- HELBURUAK

- Ume eta gazteen kolektiboari aukera ematea topa-guneak eta aisialdi-eta atsedena- tokiak ematea euren artean harremanak errazteko.
- Zentro dinamizatzaileak izan eta horiengandik jardueren programak egitea kolektibo horiei zuzenduta.
- Ohitura osasungarriak indartzea erabiltzaileek horrelakoak izan ditzaten aisialdian, eta bai euren buruarekin balio baikorrak ere.
- Erraztea ume eta gazteak udalerriko bizitza soziokulturean gizarteratzeko.
- Euskara indartzea atsedena eta aisialdiko ekintzetan.
- Erraztea nor berak bere ekintzak eta ekimenak antolatu eta kudeatu ditzan, bereziki, gazteen kolektiboan.
- Aukeren berdintasuna indartzea, planteatzen diren zeharkako helburu eta ekintza guztietan.
- Elkarbizitza, kulturen artekotasuna eta boluntariorasuna (ezagutza solidarioa) bultzatzea.

5.- HARTZAILEAK

Zerbitzua 4-18 urte bitartekoentzat zuzenduta dago. Aurten izango da 1994 eta 2008 urte bitartean jaiotzen direnentzat. Zerbitzuak honela banatuko dira



DERIOKO UDALA

adinez: txikiak, ertainak, ludogazte eta gazte. Dena den, beti egon daiteke bestelako adin tarterik, horrela planteatzen badu Derioko Udalak.

Bai Ludotekan bai Gazte-n, sarrera libre eta doan izango da bertara joaten diren guztientzat. Murrizketa izango da funtzionamendu eta elkarbizitza arauak betetzen ez direnean, horiek finkatuko dira udalerrri mailan zein erabiltzaileen eta begiraleen artean.

Plazaren edukiera gaindituz gero edo eskatzaileentzat eskaerak betetzeko giza baliabide gehiago behar izanez gero, enpresak, zerbitzua behar bezala beteko dituzten kudeaketa ereduak proposatuko dizkio Udalari.

Programa bereziak, irteerak, txangoak ordainduko dira Udalak finkatutako prezioen arabera.

6.1.- EGUTEGIA

Zerbitzua emango da irailetik uztaileira, abuztua itxita dago.

Publikoarentzat zabalduko da irailaren azken astean.


Publikorako zerbitzua amaituko da bigarren astean txikientzat eta ertainentzat. Eta Ludogazte eta gazte zerbitzua ekainean ere egongo da.

Honako programa bereziak jartzen dira:

- Gabionak
- Aste santua
- Udako programa berezia
- Lanegun ez sartuta eskola-egutegian, ikasturtea hastean finkatuko da (inauteriak, zubiak...)

6.2.- ORDUTEGIA

- Txikiak eta ertainak: 16:00etatik 18:30etara, astelehenetik ostegunera. (Begiraleak 15:45etatik 18:45etara.)
- Ludogazte: ostiralak 18:45etatik 21:15etara. (Begiraleak 18:30etatik 21:30etara.)
- Gazte: 18:00etatik 21:00etara, ostegunetik igandera. (Begiraleak: pertsona bat 17:45etatik 21:15etara, ostegunak, larunbata eta igandeak, eta pertsona bi ostiralak 17:45etatik 21:15etara).
- Talde batzarra: asteazkenak, 14:30etatik 15:45etara.



DERIOKO UDALA

Kanpaina bereziak, goizezko ordutegian lehentasunez, 10:00etatik 13:00etara. (Begiraleak, 9:45etatik 13:15etara). Ludoteka: goizez eta arratsaldez "Gazte"n, arratsaldeko ordutegia mantenduz eta lokala goizez zabaltzen 12:00etatik 14:00etara.

Bost begiralek zerbitzuari arreta emango diote, taldeen betekizun hauek kontuan hartuta:

- Begirale bi txikientzat
- Begirale bat ertainentzat,
- Begirale bi ludogazte-rako,
- Begirale bat Gazterako ostegunak, larunbatak eta igandeak,
- eta begirale onitore bi Gazterako ostiralak.

Koordinatuta dauden pertsonen ordutegia: aipatutakoaz gain, astero 15 ordu, horiek finkatuko dira zerbitzua antolatzean.

Zerbitzuko profesional guztiek ordu-poltsa bat izango dute jarduera berezientzat (Kabalgata, haur parkeak, irteerak...).

Aurrez aldetik ezarritako ordutegi guztiek alda daitezke Udalak horrela eskatzen badu zerbitzuaren betekizunen arabera.

7.- BALIABIDE FISIKOAK ETA MATERIALAK

Lehiaketan parte hartu nahi duten enpresei dagoen materialaren inbentario emango zaie.

Esleipendunak beharreko materiala jarriko du programak garatzeko.

8.- METODOLOGIA

Proposatuko den lan-metodologiak psikopedagogi kontzeptu hauek izango ditu: dibertimendua, jarduerak, partaidetza, pertsonalizapena, sormena, osotasuna, ikuspegi kritikoa, integrazioa eta aniztasuna, ezberdinei arreta eta borondatezkoa.

Gainera, kontuan hartuko dira zehar moduan hartuko dira: aukera berdintasunerako balio metodologikoak, kulturen artekotasuna, euskararen erabilera eta sustapena, ingurugiro hezkuntza eta bizikidetasunerako hezkuntza.

9.- PERTSONALA



DERIOKO UDALA

Zerbitzuak dinamizatuko dituzte haur zerbitzuetako koordinatzaile batek eta gazte zerbitzuetako koordinatzaile batek. Horiek lanaldi osoa izango dute. Gazte zerbitzuen arduraduna administrazio lan eta zerbitzuaren difusio lan guztiak beregain hartuko ditu. Eta beste hiru begirale egongo dira lanaldi erdian kontratatuta.

Lehentasuna izango du sexu biko parte-hartze ekipoak, eguneroko harremanak artikulatzeko xedearekin, –maskulino eta femenino-identifikazio positiboen ereduetan oinarrituta.

Euskara izango da langileek erabiliko duten lehentasuneko eta ohiko hizkuntza, bai antolatutako ekitaldietan, bai lokala erabiltzen dutenen arteko harremanetan. Beraz, adierazpen- eta harreman-gaitasun osoa izango dute bi hizkuntz ofizialetan.

9.1. PERTSONALAREN EGINKIZUNAK

ZERBITZUKO BEGIRALE-KOORDINATZAILEEN OINARRIZKO EGINKIZUNAK.

Lan taldea koordinatu eta errekurtsuak kudeatuko dituzte haur ekimenak sustatu, bideratu eta babesteko helburuarekin. Euren eginkizun zehatzak dira:

- Zentroak eta horien baliabideak antolatzea eta dinamizatzea.
- Zentroko ekitaldiak programatzea, martxan jartzea, garatzea eta ebaluatzea, lehiaketa honetan onartutako proiektuaren arauari jarraiki.
- Kanpaina bereziak programatzea, martxan jartzea, garatzea eta ebaluatzea.
- Espazioa, ekipamendua eta materiala antolatzea, girotzea eta mantentzea.
- Koordinazio bileretan parte-hartzea udal langile teknikoekin eta Udaleko Kultur Arloak antolatuko dituen haur edo gazte programetako ekitaldietan.
- Zentroen kontserbazioa eta zaintza arrunta.
- Ume eta gazteen ardura dutenei informazio bana ematea umeen eta gazteen ebaluazioari buruz, baldin eta hori eskatzen bada.
- Aldizkako segimendu txostenak egitea, ekipamenduaren benetako egoera ikusi ahal izateko eta aldaketak egin ahal izateko arrazoiekin.
- Koordinazio osoa Udaleko Kultur Arloarekin.
- Publikoari arreta administrazio lanekin lotuta dagoen guztiari buruz.
- Aurrekontuak eskatzea.
- Zentroetako materiala erosi eta berritzea.
- Jolas materiala konpontzea/berritzea.



DERIOKO UDALA

- Zuzentzea programazioa eta programa bereziak (Gabonak, Aste santua, Udako programa bereziak) garatzean.
- Aurrekoez gai, begirale lanpostuan daudenak eta xedatuko diren antzeko kategoriako guztiak.

ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO PROZEDURAREN ERANTZULEA DEN GAZTE ZERBITZUETAKO BEGIRALE BEGIRALE-KOORDINATZAILEAK BETE BEHAR DITUEN ADMINISTRAZIO EGINKIZUNAK ETA HEDATZE EGINKIZUNAK:

- Zentroetako eta horien ekitaldien informazioa eta hedapena, umeak eta gazteak animatuz parte har dezaten: web gunea sortzea eta mantentzea, hileroko pdf egitea zerbitzuaren ekitaldiekin, blog...
- Matrikulazio kanpainak egitea: formularioak, zerrendak, matrikulak, jakinarazpenak bidaltzea bai paperean bai informatiko euskarrian, ordainketen kontrola...
- Bulego teknikora eramatea eta jakinaraztea zentroak mantentzeko, behar bezalako garbiketarako eta berogailurako.

BEGIRALEEN OINARRIZKO FUNTZIOAK:

- Programak agertzea eta martxan jartzea, zerbitzuko koordinatzaileak adierazitako oharrei jarraiki.
- Espazioa kontserbatzea, antolamendua eta mantenamendua.
- Ekitaldi zehatzak programatzea, koordinatzailearen oharren arabera, zerbitzu zehatzetan Ludoteka edo Gazte proiektua aintzat hartuta.
- Egindako ekitaldien ebaluazioa.
- Erabiltzaileei arreta pertsonalizatua.
- Erabiltzailez arduratzen duenei arreta pertsonalizatua.
- Zerbitzua zabaltzea eta ixtea.
- Lan taldeko erantzukizuna kanpaina berezietan.
- Eguneroko ebaluazioaren fitxak betetzea eta egunero ekipoari bidaltzea bere ardurapean dagoen zerbitzuan izandako gorabeherak.
- Aurrekoez gainera, xedatuko diren antzeko kategoriakoak.

9.2. LAN TALDEA

Langile guztiak 21 urtetik gorakoak izango dira, eta zerbitzua emateko behar den euskara maila izango dute.

9.2.1. KOORDINATZAILEENTZAT BETEKISUNAK:



DERIOKO UDALA

- Titulazioa: Aisialdirako Zuzendari edo Begiralea eta unibertsitateko erdi mailako titulazioa (irakasletzakoa, gizarte integrazioa, haur hezkuntza...) gizarte-hezkuntzarekin lotuta.
- Arlo honetan esperientzia onartua izatea, hau da, haur eta gazte animazio ekipoetan lanean izatea bi urte gutxienez.
- Udalerriko errealitatea ezagutzea.
- Ezagutza informatikoak, blog eta web diseinua, eta office ezagutzea.

9.2.3. BEGIRALEEN BETEKIZUNAK:

- Titulazioa: Aisialdirako Begiralea eta gizarte integrazioarako erdi mailako modulua edo animazio soziokulturalaren erdi mailako modulua.
- Arlo honetan esperientzia onartua izatea, hau da, haur eta gazte programetan begirale bezala lanean izatea urte bat gutxienez.
- Udalerriko errealitatea ezagutzea.
- Betekizun bereziak dituzten umeei arreta eta laguntza berezia emateko begiralea denean, behar adina hezkuntza edukiz gain, banakako arretan hezkuntza eduki behar.

9.2.4. ENPRESAREN BETEKIZUNAK

Honakoak izango dira:

- Enpresak langile arduradun bat edukiko du proiektuaren administrazio kudeaketak betetzeko.
- Enpresak langile arduradun pedagogiko bat edukiko du proiektuaren garapenari erantzuna emateko.
- Enpresak erantzukizun zibilaren aseguruia garatuko den proiektuarekin bat etorriz.
- Lan Arriskuen Prebentziorako Plana jarri dela egiaztatzea.
- Berdintasun, trebakuntza eta langileen birziklatze plana edukitzea.
- Kalitatezko sistema aplikatzea zerbitzuaren funtzionamendurako.

9.2.5. ENPRESAREN FINANTZA BETEKIZUNAK :

Hauek izango dira:

- Zerbitzuan garatzen diren proiektuen hornitzaile guztiei ordaintzea, baldin eta Udalari ez bazaio zuzen fakturatzen.
- Koordinatzaileari justifikatu beharreko dirua ematea, diruz ordaindu behar diren gastuentzat (eguneroko materialen erosketa, suntsikorrak, fotokopiak...).
- Zerbitzuari erantzuna emateko urtean izan diren gastu guztiak aurkeztuko dira, eta inbentarioaren egunerapena.

9.2.6. PUBLIZITATEARI, KASU BEREZIEI ETA HONEKIN ZER IKUSIRIK DITUZTEN BESTELAKOEI DAGOZKIEN ENPRESAREN BETEKIZUNAK.



DERIOKO UDALA

Enpresa esleipendunaren ardura honakoa da: zerbitzuaren hedapen kanpainak, hileko buletina paperean ala informatika euskarrian herriko 4-18 urte bitartekoentzat zuzenduta, horretarako ziurtatu beharko du hedapenik eta norainokorik handiena daukala. Era berean, enpresa esleipenduna hauetaz ere arduratuko da: Web gunearen eta zerbitzuko blog-en diseinua eta mantenamendua, kartelak, familiekin eta erabiltzaileekin komunikazioa eta antzekoak publizitateari dagokionean.

Aisialdiaren gozatzeari dagokionean haur biztanleria oparoa eta anitza da, eta bai oinarrizko gizarte-hezkuntzan premiei dagokienean ere. Ezgaitasun fisikoak zein ezgaitasun intelektualak zein zentzumen ezgaitasunak dituztenek beharreko baliabideak eduki behar dituzte aisialdia taldeka erabil dezaten. Kasu hauetarako, enpresak jarduera-protokolo berezia egingo du horrela behar dutenentzat, ezgaitasun fisiko edo psikiko edozein dela. Eskatzaile hauekin helburua da giza eta material baliabideak jartzea zerbitzuaren eskaintzan sartzeko.

Enpresa da umeentzako zein gazteentzako gizarte-hezkuntza gaietan Udalak eskatzen dizkion jarduerak egitearen arduraduna.

10.- FUNTZIONAMENDUAREN KONTROLA.

Zerbitzuaren segimendua egingo da, zerbitzuen proposamenean zehaztuko diren jardueren bidez. Zehaztuko dira esleipendunaren langile teknikoen eta Udaleko arduradunak ere.


Era berean, proposatutako ebaluazio sistema ere zehaztuko da, bertan zerbitzuaren erabiltzaileen eta tutoreen ebaluazioa egongo da.

Eta proposamen hauek ere aurkeztuko dira: eguneko, asteko eta hileko kontrol fitxak, eta familiek eta erabiltzaileek bete beharreko zerbitzuaren ebaluazio-ereduak.

11.- DINAMIZAZIO PROIEKTUAREN EGITEA.

Egindako proposamena behar bezala ebaluatzeko xedearekin, zerbitzua kudeaketa eta dinamizatze proiektua aurkeztuko da. Horrek honakoak izango ditu:

- Helburu orokorrak eta zehatzak.
- Funtzionamendu eta dinamizazio bideak:
 - Lan metodologia,
 - Umeen eta gazteen parte-hartzea.



DERIOKO UDALA

- Eskatutako jarduerak eta egutegia horiek betetzeko.
- Ebaluatzeko irizpideak eta sistemak.
- Proposatutako jardueren hedapena.
- Euskararen erabilera eta baliabideak sustatzeko.
- Giza- eta material-baliabideak.
- Hileko aurrekontua, pertsonalaren eta jardueren kostuak xehatuta.
- Ingurumen hezkuntzan eta kulturarteko hezkuntza ez-formalean berdintasunaren zehar-printzipioan sartzeko tresnak.
- Erabakitasun pedagogiak “kasu beresietan”, jarduera-protokoloa sartuz.
- Langileak trebatzeko eta birziklatzeko proiektua.